

Berezko marko estetiko eta kulturala: Bertsolari Txapelketa Nagusia, euskal Agoraren bilgunea

Jexux Larrañaga Arriola

EHUko Antropologia Doktoretzako ikaslea

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren ibilbidea unerik emotiboenera iritsi da eta denok batzen gaituen *Bilbao Exhibition Center*-en itzalpeko arima biziara du bere taupadetan. Bilgune horretan hautemandakoa, ikusitakoa, entzundakoa, sentitutakoa, esangurazko eremu baten mugarrria da, aldiro-aldiro eraberritzen den espazio-denbora baten bidegurutzearen atarian. Lan honen xedea, sormen-lurralde eremuko sinbolismo kulturala aztertzea da, eta horretarako Dan Sperber-en *dispositibo sinbolikoaren* mekanismoa abiaburu, narrazio kulturalaren eszenaren kontzeptu-ardaztaileen deskribapena egin dugu. Espazio hori intentzio batekin eraikita dago eta sormen-eraiketa horretan ebokazio/gogoramena lehendik jasotako oinarri kulturalaren gainean eraikita dagoenez, diskurtso berriak eta irudi berriak eraikitzeko duen garrantzia agerian jarri ohi du iruditegi kolektibo eguneratzeko prozedura biziberrituz. Horrela, sinbolismoaren esperientziaren oinarrian uler liteke ebokazio-eremu kultural baten berreraikuntza-prozesua gizartean gertatzen diren aldaketei lotuta agertzen dela.

GAKO-HITZAK: Dispositibo sinbolikoa · Irudikapen kontzeptuala · Iruditegi kolektiboa · Berridazketa.

The most exciting moment of the Basque Bard Championship (Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia) has arrived, bringing us all together at the *Bilbao Exhibition Centre* and livening our heartbeats. The things we perceive, see, listen to and feel here today are a meaningful milestone, the arrival at continually renovated crossroads. The purpose of this work is to study cultural symbolism in the context of territorial creativity, and for this reason we will describe Dan Sperber's starting point with regard to symbolic mechanisms, the central concept for narrative culture on the stage. In the same way that this space reflects an end, evocation and memory are important in the constructive and creative process as they are built on an acquired cultural basis. This is how we understand the connection between the contents of evocation/memory and collective imagination as part of the basis of the cultural symbolism experience, which is where we see the most important cultural values reflected. The contents of collective images and memory reflect social changes.

KEY WORDS: Symbolic mechanism · Collective imagination · Rewriting.

Jasotze-data: 2009-10-22. *Onartze-data:* 2010-01-04.

1. Sarrera¹

Geertz-ek (1973) kultura aztertzeo egindako ekarpenean, kultura azaleratuta-ko dokumentu publikotzat jotzen du, hots «la cultura ese documento activo, es pues pública... aunque contiene ideas, la cultura no existe en la cabeza de alguien; aunque no es física, no es una entidad oculta» (2005: 24). Ageriko dokumentu hori, besteak beste, ekintza-praxia kulturalen behagarria litzateke, horrela, Geertz-en arabera, adierazpide kultural orok duen dimentsio sinbolikoan, giza taldeak partekatzen duen mundu-ikuskerara, ideia filosofikoak (adierazle kognitibo eta afektiboetan baitaratua) eta balio sozialak, *ethos*-a (adierazle estilistiko eta jarrera, tonua eta arima) erakutsi ahal izango ditu. Entsegu honetan, aztergai analitikoztat darabilgun praktika kulturala, egitate sozial garrantzitsu eta esanguratsutzat jo dugu egungo kultura-bidean; hortaz, ikuspuntu horretan, Txapelketa Nagusiaren ibilbide kulturala, aktibatua dagoen dokumentu publikoa dela uste dugu, lau urterik behin indarrez plazaratzen den gertaera sozial adierazlea, esangura sozio-kulturalaren baitaratzaila.

Hari-bide horretan, *ethos*-aren modu erretorikoak alegoriatzat jotzeko ahalegina da ondorengoa, gertakariaren muinak baitaratzen dituen erro metaforikoak arakatu eta (irudia eta diskurtsoa eremuaren antolatzaileak direnez gero) ebokazio/gogoramenak eransten dion poetikaren indarrarekin azaldu/jaso egin ohi diren gunean aztertzeo. Postmoderniaren diskurtsoan, etnografia, gogoramen/ ebokazio horrekin pareka liteke, etnografia poesiatzat har litekeenean eta komunitatearen *ethos*aren oroimena biziberritzeko funtzioa betetzen duenean. Aztergai jarri dugun testuinguru trinko hori, «parentesi» edo «kakotx» (denbora soziala ezabatzera datorren une liminala² da) artean jarritako performancea bailitzan jaso liteke, une iragankorrak eragiten duen denbora-etenaldiaren ondoren, banako eraberritua «zentzu»aren lurraldean birkokatzeo eraginak sor ditzakeenean arima kolektiboa biziberritzearekin batera.

Adierazpide kultural horren praktika aztertzeo ikuspuntu hau lehenetsi dugu: praktika sozial horrek duen dimentsio sinbolikoan, Euskal Herriko Txapelketa Nagusiaren ibilbidea jo dugu kultura-muin bat aztertzeo kategoria analitiko aberats. Muin horrek baitaratzen duen *lurralde-unibertsoak*, unearen iragankortasun liminalaren eraginez, gizarte garaikideetako identitate kolektiboen uneko azaleratzea irudika dezake, eta performanceak duen indar bizi-berritzailean³, euskarritasuna eta garapena aztertzeo sustrai sakona duen gertakari sozial esanguratsua taxutu. Hara, Txapelketaren ibilbidea, denboraren sokan luzera diakroniko nahikoa duen

1. Entsegu honetako lana Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian oinarritua dago. Txapelketa hori, lau urterik behin plazaratzen den ekimen kultural indartsuaren gailurra mugatzera datorren ekitaldia da. Azkenekoa, Barakaldoko *Bilbao Exhibition Center* deritzon aretoan ospatu zen milaka lagunenean bilgunean eszenaratua. Eszenaratze hori antolaketa sozial zabalagoaren adierazlea da eta errealitate sozial zehatzaren biltzailea, aitzitik «pieza antropologiko» esanguratsutzat jo dugu.

2. Une liminala, Arnold Van Gennep (1960) soziologo frantsesak erabili zuen eta gero Victor Turner (1980) antropologo eskoziarrak garatu *La selva de los símbolos* (1980) idazlanean. Turner-ek une liminalaren ezaugarrien artean gabezia aipatzen du.

3. Bauman-ek (2002) indar sozial gisa hartzen du, giza ekintzak sortutakoa. Del Valle-k (2002: 15) eredu emergentea aipatzen du: «Aquellos constructos con entidad, peso referencial que incorporan nuevos significados, valores, éticas, relaciones y tipos de relaciones».

adierazpen kulturala izanik, kolektibo baten «gogo bizia»⁴ asebate egiten duen mugarri baten gisara ulertzen dugu, bilgune horrek autokontzientzia iragartzeko gune sinbolikoa laburbildu eta metatzeko duen eraginean. Hots, «el marco escénico (en diferentes tiempos y lugares) ciertamente cambia y los actores cambian sus vestimentas y su apariencia; pero sus movimientos internos surgen de los mismos deseos y pasiones de los hombres y producen sus efectos en las vicisitudes de los reinos y los pueblos» (Lovejoy, 1960 [in Geertz, 2005: 44]).

2. Txapelketa: praktika kultural eraikia

Batasun-premian dagoen kulturak zenbait unetan autobaieztapen-unearen beharra du eta batasun hori eraiki beharrekoa da, autokontzientziaren unea iragarri eta zentzugintzaren antolaketa «unibertso sinboliko»aren⁵ eratze-prozeduran baitaratuz. Berdin, identitatearen atakan bizi den herriak beharrekoa duen batasuna eraiki, birstutu eta errepresentazio sinbolikoaren eremuko jardun bilakatzen du, kultura-ekimenaren sena eta mamia gisa horretan irudikatu eta azaleratu ahal izateko. Eugenio Arraizak (1995) kulturaren dinamikotasunaren adibide «eraikitzen duguna besterik ez dugu ulertzen» adierazpidea dakar, kultura, gizakia-prozesua-eragina, denak subjektiboak eta aldakorrek direnez, garaian garaikoaren eta tokian tokikoaren isla direlako. Arraizaren aburuz, kultura-eraikuntzak halako baldintzak behar ditu, hots: Bat: lurralde batean edota testuinguru batean eraikitzen da. Bi: aurretiko sustrai kulturalaren gainean eraikitzen da, ez hutsean. Hiru: zehaztu egin behar da zerbait eraikitzekotan. Lau: eraikitze-prozesua, ulertze-prozesuarekin batera doa.

Eraikuntza kulturalaren kontzeptu eta kategorizazioak direla medio, komunitateak errealitatea irudikatzeko bitartekoak baliatzen ditu, berezkotasun-eremu gisa azaleratu eta berezko espazio propioa irudikatzeko joeran. Egituraketa horrek batasun bat eta bereizgarritasun bat eman ohi dio giza bizitzaren eremu zabal bati, hala, kultura batek testu multzo gisa aurkezteko joera izan dezake irudikatzen dituen errepresentazioak eredu gisa jaso ohi dituzenean; izan ere, erregistro horretan jasotako kodetze kulturala, ama-hizkuntza baten indarrean letorkeen testua baliatuzateke. Iuri Lotman-ek (1998) testu kulturalaren eraikuntzaz hauxe diosku: «La función del texto es definida como su papel social, su capacidad de dar servicio a determinadas necesidades de la colectividad que crea el texto» (1998: 163). Horrela, testu hori partekatzen duen komunitateak «erregistro» jakina darabil eta haren muinean, hizkuntza, harreman-eragile eta zentzugintzaren antolatzaile bilakatu ohi da. Beraz, espazio hori, mami handikoa denez, prozesu kultural gisakoa ulertzen dugu, komunikazio-prozesu kulturalaren garraiatzailea. Beraz, erregistro horren

4. Ibilbide kulturalaren abiaburuak izateko kontzientzia du iturburu. Abiaburu hori, entsegu honetan erabili dugun bezalaxe, gogo biziaren adierazlea da eta esan-ekinak ezaugarritzen du. Gogo-atonkera horrek itxaropen kolektiboak elikatzen dituzenean, ibilia behin eta berriro errepikapenean suspertu egiten du eta proiektzio sinbolikoa ematen dio, komunikazio-prozesu bat gisa horretara antolatuz.

5. Darabilgun moduan unibertso sinbolikoa era askotako esanahi-esparruek atxikituriko ezagutzaren baitaratzailea da, ordena sozialaren eta kosmikokoaren arteko loturan kokatzen denez delako unibertsoa, errealitate sozial jakin batekin loturan agertzen da betiere, Berger eta Luckman-en (1984) aburuz, «unibertso sinbolikoa» legitimazioaren azkeneko maila adieraztera letorke. Egile horien ustez, unibertso sinbolikoak izendatzailea eta antolatzailea izateko funtzioak bete ditzake, halaber, gertaera kolektiboak batasun-koherentzia batean kokatzen ditu, iragana, oraina eta etorkizuna lotura-soka batean uztartuz.

nolakotasuna, hizkuntzaz harago, testuak bere barnean dituen ezaugarrietan berdin arakatu beharko dugu, esaterako, duen erregistro metaforikoan, ezaugarritze estetiko eta zeremoniala aztertzeraz gatzenean. Praktika kulturalaren trinkotasun horretan ekoiztako *testu kulturala*⁶, balio aparta duen testua izaki, eredu gisa jaso ohi denean, esan dugunez, ama-hizkuntzaren indar pare-parekoa da, ondorioz, narrazio kulturalan «inskripzioa»⁷ eragiteko moduko bitartekari ahaltsua da, memoria kolektiboaren arima ainguratuz bere aurretikoak diren ezaugarri berdineko testuekin harremanetan jarri eta oroimen kolektibo hori eguneratu eta biziberritu egin ohi duenean. Delako testu kulturala eredu gisa har liteke, egitura gisa, baita ikur modura ere, ikur nabarmena gainera, kolektibo baten gertaerak izendatu eta antolatzeke duen eraginean. Lotman-ek (1998) dioenez, gertaera kulturala adierazi baten eramailetzat jaso liteke.

Gisa horretara jasotako testu kulturala, sakontasun diakroniko handikoa da eta memoria baten garraiatzailea. Oroimenaren sakontasun hori, bere osagai linguistikoek hala adierazten dutenez, hizkuntzaren oroimen-muinak gordetzen du ondoen, eta eraldaketaren baitakoa ere badenez, testu-ingurune sinkronikoan egikaritzen denean hartzen du indar oso-oso, unearen indar emotiboak txertatzen dion bizipen partekatua indarrean, esango genuke. Horrela, erregistro berdineko testuinguru-oroiarena berreraikitzeke duen ahalmenean, esangura sinboliko handia duen sorkuntzaren ondorioa da, sorrarazten duen oroimena biziberritu eta eguneratzeko duen eraginean. Bizipen partekatua ahalmen sinboliko hori, askotan, kolektiboak aukeratutako osagai materialetan sintetizatzen da, hots, *sinboloa*⁸ (Turner, 1990) kolektiboak bizi izandakoa ordezkatu duenaren gainkarga bereganatzera datorrenean. Eszenaratze horrek duen gainkarga sinbolikoa narratiba kulturalaren alorrekoa liteke, bere harreman metaforikoan, adieraziak ordezkaten duena eta komunitateak «bere» egin duena, eraikuntza testuala aintzatetsi eta balio biziberritzaileen onarpenaren eta estimuaren eremu sinbolikoa du eragin. Horrela, sinbolo batzuk zentzu-sakonera handiagokoak izango dira herri baten ibilbide kulturalan, eta beste batzuk, berriz, oroimen kulturalaren gordailu apartak. Horixe da, egun, Txapelketaren eszena-markoak biziberritzen duen erregistro kulturalari ematen diogun kokaleku sozial aparta, irabazitako prestigio kulturalaren ordezkari-adierazlea, pieza eta ikur nabarmena narratiba bat izendatzeko gunean plazaratua.

Halaber, sorgune horrek gidaturiko kodetze kulturalak testu kulturalaren bi norabideak agerian utziko ditu, hots, oroimenaren berreraikuntza batetik, eta komunitatearen autokontzientziaren biziraupenaren beharra bestetik. Ondorioz, eremu

6. Luri Lotman (1998) semiotika kulturalaren aitzindarietako bat da. Testu kulturalari ematen dizkion ezaugarrietan honakoak azpimarratzen ditugu: Bat: «zentzu» sorrarazlea du. Bi: ohikoaz gain berariazko lengoia darabil. Hiru: memoria kulturalaren dispositiboa da. Lau: aldaketa kulturalaren eremukoa da. Bost: sinbolikaren euskarria da.

7. Paul Ricoeur-ek erabili zuen kontzeptua lehenengoz. Inskripzioa, lurralde-unibertsoaren harremanen eraginez, bizipen partekatuan memoria kolektiboa elikatzeraz datorren esanahiezagutzaren multzoa da eta kolektiboaren ibilbide narratiboan esangura aparta izango du. Ezagutza-esanahi sarea aldiro-aldiro eraberritzen denean «berridazketa» hitza darabilgu.

8. Haren ezaugarrietan, oroimen kulturala kondentsatzeko duen gaitasuna azpimarratu dugu, horrela, sinboloak ordezkaten duen kargak memoriaren garraiatzaile izateke ezaugarria erantsiko dio. Hortik eratorria errepikapenerako egitura datorkio. Aldiroko errepikapen horrek, testuinguruaren harremanetan, eraginezko ahalmena kondensatzen dio. Victor Turner-ek esangura trinko horiei *sinbolo giltzarriak* esan zien, esangura askoren kondentsazioa baitarazten baitute.

horren susperraldian, komunitate baten praktika kulturalaren jarraitutasunaren seinale gisa, ordezkaten duenaren ahalmen metaforikoan ondasun kulturala pitzaraz dezake halako eraginezko susperraldian, jendetza batzen duen bidegurutze⁹ estrategikoa taxutu eta zehaztu egiten duenean. Delako eraikuntza, hitzez haragokoa, hitz soilez adierazi ezin litekeen «egia» baten baitaratzaillea da, aldiro-aldiro biziberritzen duen «mekanismo kontzeptuala»¹⁰ (Sperber, 1978) narraitiba kulturalaren eszenan.

3. «Zentzu»aren lurraldea

Antropologiaren diziplinak ibilbide analitiko ugariak ibili izan ditu Malinowski-k (1884-1942) gerturatzeko enpirikoan «bertako»aren ikuspuntua atxikitzea proposatu zuenetik eta aldagai kognitiboak eta afektiboak biak sakonduz «zentzu-egitura» batez hitz egitea ahalbidetu zuenetik. Zentzu-egitura horren abiapuntutik —Geertz-ek darabilen analisi sinbolikoaren ikuspuntuan— espazio sinboliko baten eraikuntzaren eremuan, «testu»aren esangura estetikoak ekina «inskribatu» egin ohi du ekimen-bide baten baturan, memoria kolektiboa berrelikatuz eta, ondorioz, testu kulturalaren «zentzua»¹¹ atxikitzeko berebiziko urratsa emanez. Zentzuz beteta ageri den eszena-markoaren testuinguruaren trinkotasunean, kolektiboaren gogo biziak abiarazi duen ekimen kulturala, eszenak duen balio estetikoak, emotiboa, diskurtsiboa eta gainerako osagai guztiak lotzen dituen bizipen partekatua da. Berebiziko garrantzia duen urrats hori memoria elikatzerara dator, esan-ekinak berridatzi duen oroimen kolektiboa ainguratzearekin batera. Ezagutza kultural hori, diskurtsua eta praxi soziala uztardurakoa denez, denboran kateatzen den ezagutza da, aurrera berriz birsortua izan, eta tradizioaren eraikuntzan biziberritu ahal izateko. Dimentsio horren zentzua kolektibo baten gogo biziak ibilarazi duen praktika kulturalaren alorrekoa da, hortaz, praktika-komunitate hori zentzugintzaren antolatzailea da.

Zentzua eratzeko prozesuan sistema oso baten sorrera adierazten duen lurraldea da aipatzen ari garena, *lurralde erretorikoa* (Auge, 1992), eta dimentsio baten sortzailea azaltzen denez, zentzu-ekoizpena identitatearen eraikuntza-prozesuan eraginezkoa da. Arima kolektiboa galbidean duen gizartearen postmodernian, batasun-sentimenduak bizirauteko beharra, giza kolektibo orotan sortzen den lokarri sozialaren beharra da. Lokarri sozial hori, tradizioaren bidetik ekimenera eramana denean, identitate kolektiboaren eraikuntza- eta berreraikuntza-prozesuarekin loturan jar liteke ekimen zirkularrean, *izanaren* bidea elikatu eta irudikatutako iraupen txikien segidari lotura bat emateko. Gertakari horrek, tradizioaren eta berrikuntzaren arteko tentsio-ibilbidea pitzarazten du, praxi soziala eta elkarre-

9. M. Augé-k «leku antropologikoak» deskribatzeko ematen dituen ezaugarriak dira: 1. Ibilbideak (itinerarios) jendeak ibilitako bideak edo ardatzak dira. 2. Bidegurutzeak (encrucijadas o intersecciones) jendea elkartzeko eta biltzeko tokiak. 3. Bilguneak (centros) gizakiak eraikitzen ditu, espazioa eta mugak bereizteko, horrela, beste espazio eta mugetatik ezberdintzeko.

10. Sperber-ek ezagutza sinbolikoa mekanismo kontzeptualean oinarritzen du. Irudikapen horren balioa burukoa izatean datza (enunciado cultural) azaltzen duen erregistro kulturalaren kokapenean, denboran parentesia eragin eta kakotxen arteko irudikapena antola baitezake. Buruko hori sorgune bat izan liteke memoria eta berritasunak elkarrekin lotzen direnean ezagutza-jakintzak metatuz horrela.

11. Aktore sozialek partekatutako esanahi-harremanen multzoa, mundu horri eta partekatutako sistemaren konfigurazioari zentzu jakin bat egozten dieten neurrian. Zentzu-harreman horiek kapital sinbolikoaren funtsa dira eta haien dimentsioaren eraikuntzan diskurtsuak, irudiak, eta beste elementu kulturelek parte hartzen dute.

raginezko eremu kulturala suspertzen dituela. Horrela, arima horrek dauzkan babes-beharrek identitate-sentipena biziarekin dezakete, prozesu hori giza harremanetan eta taldekotasun emozio-bizipenetan bakarrik sorbailliteke eta batura batean irudikatu. «Bilgune» (Augé, 1992) horretan sortzen den «elkarrekin egoteko» (Maffessoli, 1990) joera elkartasuna eta batura harremanaren loteslea da, giza-banakoa, giza taldearen partaidea dela erakutsi eta sentiaraztera datorrenean, banakoak taldekide izateko nahia eta inplikazioa aske bizi dituenean, partaidetza-molde bat elikatu eta berrelikatuz. Hari-ildo horretan, espazio soziokultural horren «zentzua», bere-berezkoa, bere baitakoa da, balioa bere baitan duenez, memoria kulturalaren sokan tradizioa eraiki eta partaidetza-molde bat sorrarazteko duen esangura sinbolikoaren eraginean; eta duen gaitasun performatiboan eraikitze-prozesua nabarmentzen du nortasun-iturri, esan-ekinak ezaugarritzen baitu, *performancean*¹² oinarritutako identitateaz ari garela esatera gatozenez. Praktika kulturalaren lurralde sinboliko hori, iraupena eta jarraipena irudikatzen giltzarri bat izanda, jakin beharrezkoa da amaiera-muturrean edozein nortasun irudizkoa ere badela, giza taldeak sortutako irudikapen sinbolikoa.

4. Kategoria-antolatzailea: kontsakrazioa

Dan Sperber-ek (1978) dioskunez, ezagutza sinbolikoa, memoriaren ezagutza da. Dispositibo sinbolikoak¹³ ezagutzaren eraikuntzan eta memoriaren osaeraberrelikaduran parte hartzen duenez, komunikazio-prozesu sozialaren lehen mailako eragile izatera darama. Ezagutza sinbolikoa, beraz, errepresentazioan eraikitzen diren kontzeptuen arabera da, ondorioz, eraikuntza/deseraikuntza prozesua artikulatzeko ardatza. Gertaera kulturalaren oinarrian ahozkotatasunaren sustraia dago eta sustrai horren uztarduran, bertsoaren lurraldea «jolasa, plazera eta maitasunaren munduan garatzen den jardun kontzientea da» (J. Irigaray, 2005: 238). Lurralde horretan, aztertzen ari garen marko eszenikoak arkeologia jakina darabil eta zentzu-artikulaziorako baliabide indartsua denez, espazio kultural¹⁴ kualitatiboaren mugatzaile eta antolatzaile bilakatuko da.

Marko eszenikoak baitaratzen duen sinbolismoaren abiaburuan zeremoniaren *une*¹⁵ gorenera jauzi egingo dugu, bizipenak esanguratuz, «zentzuaren printzi-

12. Jone Miren Hernandez-ek (2008) bertsolaritzaz mintzo darabilen kontzeptua da, alabaina, identitatea osatzeko prozesuan, bertsolaritzak komunitatea irudikatzen duen berri baten alde egingandako bidea agerian jartzen du. Figura berriak eta diskurtso berriak daude osaketa horren erdigunean eta, ondorioz, errealitate berriak irudikatzen dituzten fikzio-espazioa sortu eta birsortu egiten du jardun horrek.

13. Dan Sperber-ek (1989) dispositibo hitza darabil prozedura jakinetan esku hartzen duen eragiketa multzoa izendatzeko. Hala, «hautemate dispositibo» eta «dispositibo sinbolikoa» bereizten ditu. Dispositibo sinbolikoa, hautemate-iturrietatik atzemandako *input*-ak jaso eta memoriaren gogoramena sorraraz dezakeena da. Mekanismo sinbolikoa, prozedura mentalen (elkarketa askea) eragiketen multzoa osatzen duen prozesua izendatzeko darabil. Indibiduala eta kolektiboa bereizten ditu.

14. Espazio kualitatibo horrek pentsaera kulturalaren ezaugarri batzuk agerrarazten ditu, hots: espazio hori dinamikoa da (prozesu kulturala du oinarri); ordena baten baitakoa da (liturgia bat darabil); eta azkenik, espazio jarraitua da (denboran iraunarazia)

15. Geertz-ek parentesi artean jarritako denbora izendatzen du etenaldia. *Eten* bat eragiten duen denbora, denbora sakratua da, ezinbesteko ariketa bere burua sendatu eta sendotu beharra duen komunitatearentzat. Parentesiak denbora sozialaren etena dakar unearan iraungarritasuna sakontasunean bizi duela. Etenak eragiten duen *une* hori atzemangarri izan dadin sinbolikoki ezaugarritua izan behar du.

pio»aren iragarleak direnez gero. Narrazio kulturalaren eszenaren gailurrak eferbeszentzia kolektibo gorenaren unea bizi du, hots, *kontsakrazioa*. Kontzeptu antolatzaile hori *indarren*¹⁶ metaketaren baitaratzaillea eta amaierako ordenamenduaren biltzailea da. Kontsakrazio-unea, garrantzi sozialaren metatzailea denez, bere ahalmenetan eta gaitasunetan onestua izateko beharrezana eransten dio gertaera kulturalaren eremuari, onarpena eta estimua iragartzera datorrenean. Metaketa horren ondorioan, espazio antropologikoaren prozesu zirkularren itxidura eta abiaburuaren harreman-lotura ezarri ditugu. Uztardura hori «izana» eta «izena» loturan jarri dituen eremu partekatua da, «bidegurutzea»¹⁷ (Augé, 1992), narrazio kulturala izendatzera datorren amaiera-muturreko itxidura.

Kontzeptu-ardaztaile hori analisi sinbolikoaren erdigunean jarriz gero, eszenaratze-markoa (ebokazio mitikoan, tragedia grekoaren «agora»ren bilgunean irudika liteke) ahalezko *indar* izatetik eguneratutako *indar* izatera igarotzen denean, *oholtzaren* eszena, espazio sozial betearen agerle den indar sozial gisakoa uler liteke. Ahozkotasunaren erresuman, sortzeko, komunikatzeko eta mundua ulertzeko adinako balio kultural atxikiak biziberritu ahal izango duen une erdi-magikoak «agora»ren lotunea biziberritu du. Ahozkotasunaren ondorean itsatsitako balio biltzaileak *leku antropologikoa* eraldatu eta biziberritzea eragin du, bizi dugun eszena sozialaren agertoki. Lurralde horrek honako ezaugarri hauek ditu: bat, identifikazio-lekua da; bi, elkarreraginezko eremu partekatua da; hiru, memoriaren osagai adierazlea eta historikoa da.

5. Txapelaren sinbolika

Txapela janztea, sistema sinbolikoaren unitate analitiko txikienean, narrazioaren sintesia kondentsatzera datorren unean adierazia dator. Solemnea da haren janzkera. Emozio gorenak eragindako uneak bizi du. Komunitate guztia zutik, txaloka, eta emozioa gainezka. Koronazioaren une erdi-magikoa da. Jantzi du txapela.

Victor Turner-ek (1990) sinbolo-erritualari hiru ezaugarri eransten dizkio, hots, batura, kondentsazioa eta polarizazioa. Batura, gertatzez eta pentsamenduz diren loturetan atzemangarria da. Kondentsazioa, sinboloak, gauzak eta ekimenak irudikatzeke duen gaitasunak ezaugarritzen du, eta polarizazioa, diskurtsoaren zentzu ideologikoan da atzemangarria. Halatsu uste dugu guk, legatu horretan balio kultural erantsiak ekintza sinbolikoaren bidez atxikitzen direla, behin komunitatearen esku eraldatu ahal izango direnak kolektibo baten gogo asebete eta sentimendu biziberrituen jomugan denbora aurrerago berriz ere jarri ahal izateko.

16. *Indar* eta *bete*, biak idazlan honetan erabiliko ditugun kontzeptu metaforikoak dira. Edukierak eguneratutako indarra jasotzen duenean, indar-gabeziak adierazten duen hutsa edo espazio ahula gaudituta gelditzen da. Giza egintzak, bere ekimen-bidean eguneratutako indar hori, *indar*, darabilguna da, indar sozialarekin loturan. Indarrak, *ahala* (boterea) darion mekanismo kultural gisa funtzionatu ohi du.

17. «Bidegurutzea» hitza jendea batzeko eta elkartzeko tokia adierazteko darabilgu Augé-k dionaren haritik. Bilgune horiek gizakiak eraikitzen ditu espazioa eta mugak bereizteko eta beste espazio eta beste mugetatik ezberdintzeko.

Kolektiboaren begietan txapeldun eraberrituak errealitate mailak elkarri lotuta jar ditzake, testuinguru ezberdinak eta askotarikoak lotu eta aniztasun soziala onartze-prozesutik elikatuz. Izan ere, kolektiboarentzat duen garrantzia ez da nolana hiko, txapelak eragile kultural esanguratsuaren balioa erantsiko baitio gizarte maila zabalagoan. Eragile kultural horren garrantzia atzemangarria da harreman-esparru zabalagoan, baita komunitatearekiko ordezkatzan dituen balio oinarrietan ere. Txapeldun kotsakratuak, bere osoan, *ikonoaren* izaera metaforiko iragankorra bereganatzen duela esan liteke, une batez bada ere, izaera liminalaren ezaugarrien baitarazale, balio horiek errealitatea adierazteko duen sintesi-gaitasunean kondentsatzen baititu: subjektu estetiko/etiko eraberritua, «taldearen aurrean eraldatua baina berdina» (Turner, 1988). Komunitatearen begietan, bertsolaria, ahozkotasanaren sustrai kulturalak pizarazitako balioak ordezkatzera datorren adierazlea bihurtarazi du uneko liturgiak, une iragankor-liminalak ordezkatu duen kargan. Unearen ahalmen metaforikoak, ibilbide kulturala abiarazi duen sorburuko gogo bizia, ordezkatzale-adierazle zurrunean biziarazi ditu irudi eta balioak, une magikoan, eraberritu eta eguneratzeko. Irudikatutako sorgune horretan bertsolaria da *ethos* idiosinkrasikoaren laburbiltzailea, performanceak atxiki duen sustrai kulturalaren balio identitarioen¹⁸ adierazle biziberritua.

Halatsu, ekimen performatiboaren bideari jarraiki, memoria orok behar duen zentzu-itxiera gauzatzean, narrazio kulturalak egindako ibilbidean, oroimen kolektibo iltzatua uzteko bidea ere egiten ari da, eta ordezkaturako balio biziberrituetan irudi berriak eta diskurtso berriak eraikitze eremua ireki-zabaltzearekin batera, iruditegi kolektibo eguneratzera dator. Tradizioaren iturritik edanez, oroimena biziberritzeko eremu sinboliko horretan, *dispositibo sinbolikoak* (Dan Sperber, 1978) ekimen performatiboaren jarduna antolatu du. Azken akaberaren eszena indartsuak (txapeldunaren kotsakrazioa) memoria kolektiboak gordeko duen unea itun batez itxi du, ibilbide kulturalaren amaiera-muturrean. Ibilbide horren amaieran, txapela (duen karga sinbolikoan) da ituna haren balio egitura-tzailean berrestera datorren sinbolo kondentsatzailea.

6. Berezko marko estetiko eta kulturala

Errepresentazioaren eszenifikazioak eragin sinboliko nabarmena du komunitatea eraberritzeko duen ahalmenean, Turner-ek (1988) adierazten duenez; halaber, unearen izaera liminalak izaera sozial iragankorra izatera darama. Izaera liminal horrek edozein giza jardueratan garatu ohi den atxikimendua dakar, eta horrekin batera sublimazio-idealizazio joera bat ere bai. Denbora aurrerago berriz ere izaera liminal horrek errepresentazioa eraiki eta iraunarazteko joerari eutsiaraziko dio, beraz, eraginkortasun sinbolikoak denbora linealaren etendurak sortutako *etena* (une liminala) narrazio kulturalaren eremuan darabil. Eremu sakralizatu horretan kolektiboaren zauri-minen sendagarria da, komunitateak bere autoigurikapen-euskarriak iraunarazteko sentimen eta ideia kolektiboak ardatzen baititu, baturaren errepresentazioaren eraikuntza baliabide egokia izanik, aldiro-aldiro sentimen horiek biziberritu eta indartu ahal izateko. Baturaren eraikuntza errepresentazioa-

18. Balio identitario hori logika kulturalaren alorrekoa da: hizkuntza eta lurralde ardatzak darabiltza bere oinarrian. Identitate hori eraikitze-prozesu gisa azaltzen da, esan-ekinak ezaugarritua, praxi batek ezaugarritzen duela. Prozesu sozial komunikatiboan, onarpen-prozesu sozialak elikatzen du.

ren marko eszenikoan egiten denez, sentimen eta ideia kolektiboak lagungarriak dira batura horren nortasuna egikaritzeko, Durkheim-ek dioenari jarraiki, eragin ahaltsuak dituzte iruditegi kolektiboaren irudikapenetan.

Kolektiboak ibilitako bide kulturalaren zentzu-itxierak izan duen kausaren abia-burua bistagarri egiten du, sinbolikoan, izanaren ibilbide zirkularraren abiapuntua eta itxidura azaleratzen laguntzeko. Identitatearen atakan bizi den herriak, halaber, harrez, bizitu beharreko ibilbidea da, baturaren eraikuntzaren errepresentazio eszenikoan irudikatua izateko. Irudikatze gune hori kulturaren unibertso sinbolikoa da eta eremu horretan azaltzen da eraginkor: azken buruan burukoaren gatazka dialektikoa gainditu eta batura irudikatzen denez, eszenak kulturaren eraketa-antolamendu antzinakoaren mitoa dakar. Mitoaren poetika horrek *marko estetiko* nabarduraz janzten du.

Marko beregain horrek estilo bat ezarian uzte du, berezkoa eta unibertsalena lotzen diren eremuan, kultura-balio hautatuetan, komunitate osoak balioztatu egin ohi duena, dituen balioen oinarrian, estimuan, onespenean, begirunean, atzemangarria baita. Balio oinarri horiek marko estetikoaren euskarriak dira, zeinek erakusten baitute ahozketasunean itsatsiriko oroimen-muinak azpikontzientzia kolektiboan ondo txertatutako balioak direla. Ondorioz, kultura-molde baten euskarritasunean, komunitateak aldiro-aldiro biziberritzen duen *marko estetiko beregaina* dela ulertu dugu.

Hari-bide horretatik, zentzu zehatzenean definitu liteke kultura-era bat, alegia, belaunaldiz belaunaldi lagatako esangurazko balio jakinak era sinbolikoan adieraziak direnean. Kultura-janzkera horren barruan banakoak bere singulartasuna bereganatzen baitu, izatezko kontzientzia jakina. Hori alderik unibertsalena bada ere, horrekin batera janzkera kulturalaren beregaintasuna irudikatu da berariazko sen eta mamiaren garraiatzaile agerikoa denez. Berezkotasun horrek bere ezauzgarrietan erakusten duenez, kultura-era dinamikoa, eraldatzailea eta balio eraberrituen sortzailea da, norberaren balio oinarrietatik birsortzen eta birsortzen ari denean. Berezko era horren onarpenean komunitatea bere autoirudikapenen balioztapena egitera datorrenean, estilo propioz, Geertz-ek (1973) *ethos*-a izendatu zuenaren erro metaforikoa dakusagu, hots, jarrera kultural eta estilo baten berri ematen digunean, berariazkoitasun horrek deskribatzen du marko eszenikoaren estetika-kulturala eraginkortasun sinbolikoaren eremuan. Eraginkortasun horretan gizakiaren bizi-esperientziaren hautematea globala denez, hauteman, pentsatu, bizi, sinbolizatu, elkarrekin egiten dira, eta bertako bizipenen testuinguru trinkoan balio eraberrituen adierazleak diren giza prozesuak dira, bai ikonizazioan, bai estiloan, bai estetikan, bai diskurtso eta gai sozialen uztarduran. Eremu horren berariazkoitasuna *paradigma estetiko beregaina* izendatu duguna da.

7. Paradigma estetiko eraberritzailea

Estetika, diskurtsoa eta gai sozialen uztardura, eszena-markoak baitaratzen dituen ezaugarrietan adierazia dator, horrela, bertsolariaren irudia, estiloa, jarrera eta hitza, sinesgarritasunaren prozesu sozialak euskarritzen duen estetika baten baitakoak dira. Estetika horrek eredu diskurtsibo berriak (emakumearen pentsabide psikosoziala kasu) eta ikonizazio berriak (emakumea, janzkera, itxura, kantaera) irudikatze eta aurkezteko abagunea eskaintzen du.

Kultura-era erdiesten duen oholtzaren eszenari, gaur, berritasuna dario. Estetika berritzailea agerikoa da bertsolariak kantuan diharduenean, ahots hori iristen zaigunean, iraganean erroak dituen iturritik sortzen ari denean, orainaldian ondo kokatua eta etorkizunari itxaropenaren atea ireki/zabalduz doanarekin batera: dikzio argia da esateko modu propioan jolaskoi darabil, hutsarteak pausaz bete eta ixilunea eragin, hitzetan gozo eta gazi, leun zein garratz, unearen arabera, eta esanguran indarra; esaten duena, esateko modua, kantaera, ahotsa, abiadura, aurpegiko keinuen adierazkortasuna salatzen duen pantaila erraldoian ikusgarri, bertsozaleon gozamenaren eragin gertua, bana-banako mintzoa dirudi; bertsolari bakoitzak bere-bereak dituen baliabide paratestualak eta komunikatiboak estilo propioz plazaratzen ditu, nortasun-emaileak. Halaber, sinesgarritasuna darion estetika horrek erro sakonak ditu; ondo irabazitako jarrera etikoaren ondoriozkoa baita, herriz herriko harreman-loturan eraikitako jarreraren adierazlea. Maillard-ek, etika estetikaz mintzo, horrela dio: «Estar en armonia con lo propio (uno mismo) habitar la propia naturaleza, corresponder a ella, esa es la perfección del acto estético, que por no tener otro fin que el cumplimiento desinteresado de la propia finalidad, coincide con el ethos, en su sentido original» (Maillard, 1998: 23). Estetika hori, zenbait unetan, kolektiboaren batura-indarrean gorenekoa da, bizi duen komunitateak, emozio-bizipen partekatuan, irria eta malkoa, poza zein atsekabea, emozioen bidea, «elkarrekin» partekatu ohi ditunean. Kantuz ari den bertsolariak plazera eta maitasuna, baretasuna zein harridura eragin ditzake, eta entzulea, sormenean bat egiten duenean, bertsolariak «sortu» eta «azaldu» bien aldiberekotasunean jarrera estetikoaren emozioa sorrarazten eta birsortzen ari da, entzule duen komunitatearen elkarreragin-harremana behin eta berriz suspertzearekin batera. Alabaina, esanguraren ondorioa den estetika ere bada; izan ere, darabilen esan-indarrean, bertsolariak barrua hustu egin ohi du, dena eman nahi luke, dena eman nahi lioke aurrez aurre duen komunitateari, eta ematen saiatuko da biluztu eta arropa ederrenaz janzteko hitzezko ahalegin birsortuan, nortasun-bide emailea urratuz, norberaren eta kolektiboaren arteko uztardura behin eta berriz eraginez, hitzak eta subjektuak bat egiten duten gunean, onespen eta begirunearen lurraldean, orduan, harridurak eta miresmenak bizi zaitzakete. Plazeraren eta gozamenaren eremua da orduan, hots, adierazpen *artistikoa*. Adierazpen artistiko horren estetika, une erdi-magiko limininallean, aldika, gorenekoa da, duen esan-indarraren esanguran emozio estetikoa bizi araztera iristen delarik, duen soiltasunean, zurruntasunean, eta ondorioz, apaindura gabeko edertasunean.

Adierazpen artistiko horretan, bertsolaria, nortasun-emailea eta sortzailea da, nor bere baitatik ari denean, nortasun-iturri banakoarentzat zein kolektiboarentzat, jarrera sortzailean kontzientzia- eta autokontzientzia-gune bat iragarriz eta proiektatuz, ebokazio/gogoramenaren poetikak islatzen duen indar diskurtsiboan, unea eta gunea bere eta «berezko» egiten ditu, darabilen hitzaren erresonantzia jantzi kultural berariaz azaldu/jaso egin ohi duen eremuan. Erresonantzia estetiko horrek iraganean ditu erroak, oinarrizko konfigurazio baten aldarrian hizkuntzaren oroimen-muinak gureganatua, egun, aurrera proiketetzen ari dena sortuz eta birsortuz, eraldaketa eta balio sozialen ispilu. Esan liteke oinarrizko konfigurazio horrek ondasun kulturala pitzarazten duela kolektibo horren batura-indarrean adierazle. Egun, «bertsoak, espiralak dabil dibujatzen, herriz herri oinarritik zabaltzen eta luzatzen» eta estetika espiral horrek (non loturak egiteko aukera aurki litekeen)

eragiten duen dinamika ez dago hutsean sortua, intentzio-bide baten ondoriozkoa duenez, hizkuntza-muinetik datorcio berebiziko indar sortzailea izateko abagunea. Estetika berritzaile horrek, belodromoko iragan hurbileko biribiltasuna elikagai, sortzaile-eraberritzaile izateko irudimena memoriaren bidetik eratoritzen duenez, memoria eta iragana, fikzioaren prozesu sortzailearekin elikatzen ditu, iragana eta oraina biziberritzeko prozesua hezurmamitu eta iruditegi kolektiboa biziberritu eta eguneratzeko. Estetika horrek mundu-ikuskerara eta ideia filosofikoak islatzen dituzten adierazleak baitaratzen ditu, hots, «zentzugintza» ekoitzi egiten du, egun, sortzen eta birsortzen ari denean, ibilbide kulturalaren adierazi eta mami baten garraiatzaile ageria dela nabarmenduz. Eraldaketa horretan, behaketa-adierazle batzuk aipa genitzake:

- Kultura-logika ugariak onartzen ditu, baina oinarriak galdu gabe.
- Hibridazioa eta mestizajea, *feed-back*-aren ondorioz, aberastu egiten dute logika kulturalaren dinamika.
- Eraberritze horretan praktika kulturalak du garrantzia, ondorioz, aritzea du ezaugarri. Nortasun kulturala, aritze-bide horretatik elikatzen den ezaugarria da.
- Bizi-estiloa eta talde kulturala harremanetan jartzen dituen esparrua da, jarrera kultural bat elikatzeke sorgunea taxutzen eta atzematen laguntzen duela.
- Emakumearen presentziak pentsabide psikosozial osatuagoari atea irekitzen dio eta aberastasunaren iturria da; izan ere, kalitatea eransten diolarik, estetika-esparrua, diskurtsoa, pentsabidea, ireki/zabalduta egiten ditu.
- Transmisioaren belaunaldi-aldaketak komunikazio-estilo bat ezarri ohi du, txapelak ordezkatzeko duen kapital kulturala komunitatearen begietan irudikatuz eta duen balio irabazia balioetsiz horrela.

8. Txapelduna kapital sinbolikoaren metatzailea

Txapeldunaren jokabide-estilo iraungarriaren¹⁹ ezaugarria izan da zer esana duen esparru kulturala elikatzea eta birsortzea, bertsogintzaren ondarearen prestigio soziala eguneratzearekin batera. Alegia, zer esana, nork esana eta nola esana badituen eremua dela sinetsita eta autokonfiantza baten jarreratik iragarrita. Horrela, txapeldunaren ezaugarri-jarreran esan-ekinak bideratutako komunikazio-prozesu sozialaren sinesgarritasuna elikatu du, jarrera kulturalaren estilo bat elikatzeke jokabide-dohaia erakutsiz: talentoa eta genialtasuna. Esan liteke, esan-ekinaren jarrerak koherentzia-bidea urratzearekin batera, praxi sozialaren ekimen-bidean kontzientzia praktikoaren gidaritza markatu duela, esparruari hautatasuna eta norabidea ezarriz. Txapelduna, esparru horretan eragiten duten lotura-harremanen elkarrekikotasun eta eraginaren hitzarmen psiko-sozio-kulturalaren ondoriozkoa da, berau itun modura berrindartzen duelarik komunitatearen begietan irudikatua, onarpenaren prozesu sozialak eransten dion legitimazioaren agerbide. Harreman-esparru horretan ordezkatzeko dituen balio eta kapital kulturala, haintzat

19. Estilo iraungarria, jokabide eta komunikazio-estilo gisa ulertzen dugu hemen, praktika horretatik legitimazioa baitator. Koherentzia-bide hori, herriz herriko ibilbidean, hezurmamitzen da, ekimenean, harremanetan, elkarrekikotasun-loturetan «haragitu» egiten denean.

hartuak izateko eraginak ditu, komunitateak aintzatetsi eta ordezkatzan duen onespenean. Horrek sustraitzen du eragile izateko eta eragiteko ahalmena, norberaren erabakien gidaritzaren eta ahalegina subjektu eraberrituaren jarrera sortzailetik sortu eta elikatuz. Sormen-esparru hori ariketa estetiko hutsa baino harago, pertenezia-molde bat eta errealtate sozial zehatzagoa lotzen dituen ekimen-bide eta praktika sozialaren «jolas estrategiko» gisa har liteke, txapelduna, aktore sozial bilakatzen duelarik, banako autokontzientzia eta talde-autokontzientzia iragarritz, identitatea eta errepresentazioa, nortasun-jarrera emaile batetik fikzio-emarian sortuz eta birsortuz. Halaber, elkarkidetzaren txapel kolektiboa da, duen eraginaren ondorioan, horrela irudikatzen baita oholtzaren eszenan, bertsolari taldea besarkada sentituan, txalotzen eta txalotuak, kolektiboa zutik, emozio gorenaren une erdimagikoan.

Era berean, agerikotasuna eta gardentasuna dario. Bertsolariak, interesak, pasioak, desirak... biluzik edota jantzi dotoreenaz, norbera bere baitatik bizituz eta sortuz, ekimenez, harremanez, elkarrekikotasunez hezuramaitzen baititu; eta jarrera horretan azaltzen da baitaratzen duen kapitala, komunitatearen zilegitasuna, kapital kultural horretan datzanez. Ondorioz, begirunezko harremanak elikatutako komunikazio-prozesu kulturalen autokontzientzia sortu eta jokabide-estilo iraungarriaren lekuko bilakatzen du.

Horrenbestez, txapeldunaren kapital sinbolikoaren matrize-erroa laburbiltzeko honako printzipio hauek darabilzkigu: Bat: sinesgarritasuna eta jabegoa. Bi: elkarkidetzaren eta talde-lana. Hiru: pertenezia-moldea eta egokitasuna. Lau: elkarrekikotasuna eta ezberdinen arteko lotura. Bost: eragina eta eragiteko ahalmena; horrek guztiak begirunezko esparrua sorrarazten du.

Sinesgarritasuna dario zeren herriz herri ondo irabazitako prozesu sozial komunikatiboaren ondorioa baita, eta ekimen-bide hori bere baitakoa du, egiazko zerbait bere baitan biltzen duen ondare kulturala izaki, horren adierazlea da. Jabegoa, zeren, autokonfiantza eta jarrera sortzailak iturburua eta oinarri ditu. Elkarkidetzaren, kidetasun eta talde-lanaren ondorioa denez, bertsolarien lan-talde osoa esan-ekinak ezaugarritzen du. Elkarrekikotasuna, komunitate-harremana bi norabideko uhin komunikatiboan elikatzen du, *feed-back*-a elikatuz eta belaunaldi zein pentsaera ezberdinak harremanetan jarriz. Eraginarena, eragitea eta persuaditzea baititu helburu, emozioak eraginez eta bizipenetik elikatuz komunikazio-prozesu harremana suspertuz.

Horrela, komunitateak egin duen onarpenean, txapelduna, maila bateko kapital sinbolikoaren jabetza bereganatzen duen adierazlea da; jabetza-kapital horrek belanaldi-transmisio bidez legatutako ondasun kulturala «objektibizatu» eta ezagutza kulturalaren garraiatzaile agerikoa komunitatearen begietan bizi arazten du, adierazpen artistikoak eta ezagutza kulturalak bat egiten duten gurutze-bidean. Eredu sinboliko horren eraginean, txapeldunaren transmisioaren belaunaldi-aldaketak komunikazio-estilo bat ezarri ohi du, txapeldunak ordezkatzan duen gainkargaren iraungarritasuna, komunitatearen iruditegian balio irabaziaren balioespina berresten duenez; izan ere, sinesgarritasuna, talde-lana, egokitasuna, eragin-gaitasuna eta jarrera-sortzaila, guztiak baitaratzen baititu; jarrera estetikoaren eta erro kulturalen uztarduran legitimazio-ondare bat biltzera datorren adierazlea

kapital sinbolikoaren metatzaile agerikoa eta gardena da, komunitatearen iruditegia eguneratu eta berrindartzeko eragile adierazlea.

9. Esanguratze sinbolikoa

Lurralde-unibertso horretan hautemandakoa, ikusitakoa, entzundakoa, sentitutakoa esangurazko eremu baten mugatzailea da, zentzu-sorrarazle bat, sentimendu sakon baten arrastoa uzten duen urratsa. Gertakari sozial hori estimulu indartsua da, komunitateak identifikatu eta aintzatetsi egin baitu bere jokamoldean. Halaber, bizi izandakoa, memoria kolektiboa eguneratzeraz datorren gertaera soziala da, tradizio baten iturritik berridazten ari delarik. Hortaz, memoriak, prozedura antzekoekin harremanetan jartzea eragiten duenez, mekanismo irudikatzaileak pitzaraz ditzake (*irudikapen kontzeptuala*). Irudikapen horren sorreran ebokazio metaforikoaren poetika oroimenak eragin dezakeen mekanismo sinbolikoa da. Prozedura horretan memoriaren ezagutza-bideak iragana eta oraina lotu ahal izango ditu eragin emotiboa arakatu eta etorkizunari begira jartzeko. Ezagutza maila hori, geroa eraikitzeko abiapuntua da, Dan Sperberg-ek (1978) «*dispositibo sinboliko*»²⁰ deritzan mekanismoa.

Sperberg-ek (1978) bi ezaugarri eransten dizkio sinbolismo kulturalari: *hautatua* eta *norabidea*. Hautatzen den ekimen moduan, ekimen performatiboaren ezaugarritzea ez da nolanahikoa, aurrez ondo pentsatuta behar duena baino, duen eraginkortasunean arrakastatsua izan dadin. Norabideari dagokionez, sortu nahi den eraginean eraginkortasuna bilatzen duenez, komunikazio-prozeduraren sormenezko baldintzak oso garrantzitsuak izango ditu, helburua bete eta ebokazio-bidea urratuko bada.

Beraz, ebokazio/gogoramenaren poetikak memoriara ekarritako edukietan berebiziko garrantzia du bizi izandako emozioen eraginak ahalbidetzen duenez esparru hori, mekanismo sinbolikoaren eragiketa multzoen prozedura suspertuz. Sutura-eraginean *afektibitatea* eta *memoria* indar-biltzaileak direnez, norbanakoa eta taldea loturan jarritz oraina eta iragana harremanetan jar litezke kolektiboaren zauriminen sendagarri, batura bat irudikatu eta gertakari kolektiboen antolaketan eraginez.

Azken akaberaren prezeptu ia liturgikoak bete ondorenean, espazio hutsa irudikatuko da, hautsetara birrindua, *hauts*, oholtza hutsik, agurren ondoren jendetzak espazioa hustu duenean, *huts*, beste behin hutsaren gabezia, hutsartea da. Ikur adierazlearen, presentzia/absentzia, indarra/indarririk eza, bete/hutsa, denbora aurrera berriz ere bete ahal izateko grinaren bultzatzailea. Hustu ondorenean ezerezera murriztua gelditu da, milaka lagun lotunea izandako *Bilbao Exhibition Center* erraldoia. Eraiki eta deseraiki, eratu eta desegin. Eraldaketa hori dago *bete eta huts* espazio estetikoaren harremanen dialektikan. Eszenifikazio hau agoraren eszenan dakusagu, kultura-oinarrian dagoen ahozkotasan-muinak sormenezko

20. Dan Sperberg-ek (1978) *imput*-a fokatzeko joerak nahiko unibertsalak jotzen ditu, ez baina sorrarazten dituzten ebokazio/gogoramenak. Ebokazio erresonantzia testuinguruaren loturan sortzen direnez, giza talde bakoitzak bere-bereak ekoitzi egin ohi ditu, ondorioz memoria elikatu eta iruditegi kolektiboa eguneratu/ biziberritzera datoz.

espazioa eraiki baitu deskribatutako marko beregainaren eraginkortasun sinbolikoan. Denbora aurrera, espazio huts hori berriz ere ibilbide kulturalaren dinamika suspertzailea izango da, *hutsa* bete, hustu eta bete, berreraiki eta irudikatzeke, eta beste behin indarrez plazaratu ahal izateko, hitzaren balio soilean, plazaz plazako herrietako jardunetik bidea eginez. Ekimen performatiboaren marko eszenikoan, *polis*-a biltzen duen «agoran», narrazio baten «berridazketa» eraginezko ibilbide kulturalaren aztarna nabaria da.

Halatsu, eragindako huts horren sorrerak babesgune kulturala era dezake, bertan irudikatu den narratiba kulturalaren balio atxikien ispilu. Hizkuntzaren «plazerean, jolasean eta maitasunean» garatzen den eremu kulturala hitzaren eremu eraldatzailea da, eta egungo gizarte kulturalan gizarte-gaiekin loturan esangurazko proiektio gisa azaleratzen da, tradizio baten iturritik elikatzen ari den berezko eremu eguneratu eta eraldatua, errealtate sozialaren isla, eta eraikuntza sozialaren ondorioa. Narratiba bat izendatzen duen gune bat plazaratzera datorren eremu ekoizlea.

Hori da espazio-denbora propioa irudikatzeke eta zehazteke joera duen herri baten beharra, egituraketa horrek batasun bat eta bereizgarritasun bat ematen baitzikio giza bizitzaren eremu zabal bati. Halatsu, Txapelketaren ibilbidea, zentzu-ekoizpenaren ibilbidea ere badenez, aldiro-aldiro eraberritzen den espazio-denbora *betearen* agerkari soziala dela ulertzen dugu, halaber, esangura kulturalak baitaratzen dituen gertakari soziala ibilbide kulturalaren mugarrin. Egungo kultura-bide ñabarrean, «bidegurutzea» eta «bilgunea» izendatzen duen proiektio sinbolikoa.

Ondorioak

Dimentsio sozialaren eraldaketak diskurtsoan (berbaldien analisisa) eta ikonizazioan islatzen direnez, hitzaren eremu diskurtsiboa sakondu liteke zehatzago, diskurtsoaren eta aldaketa sozialen arteko uztardurak eginez eta bertsoaldietan islatzen direnez. Eremu hori ekoizlea da, zentzu-ekoizpena eragiten duelarik, gai sozialak ikuskera zehatzago baten arabera harilkatzen eta ehuntzen doazelako. *Norabidea* eta *hautatasuna* gizarte-aldaketaren itsasargi azaleratzen dira berezko espazio-denbora irudikatzeke beharra asebetetzera datorren eremu sinbolikoan eraldaketa kulturala eta ideologikoa goiargituz. Eremu hori, gizabanakoa kultura baten barruan kokatzeko ahalmena erakusten duena izanda, zentzugintza (ikuskerak, ideia filosofiko, balio sozial) antolatzailea da, «unibertso sinboliko»aren gordailu, hizkuntzaren unibertsoan eta ahozkotasunaren sustrai kulturalaren ardatzean, izatezko bide-sortzailean jarraitutasuna irudikatzen duen gunea, fikzio- eta kreadio-espazioa.

Errepresentazio-gune horrek darabilen poetikak ebokazioari norabidea ezartzen dio, epe luzera, sinbolikak bere-bereak dituen ibilbideak oroimenean eraiki ditza-keenez. Eraikuntza-deseraikuntza bideak utzitako urratsean memoria kolektiboaren biltegiak baitaratzen duen ondasun kulturala pitzarazi eta balio kultural eraberrituak ispilatzen ditu susperraldi eraginean. Ondasun hori, «kapital» kulturala da. Beraz, orainaldiaren bizipenetan itsatsita datorren *mekanismo kontzeptua*-ren gisakoa uler liteke (Sperber,1978) kontzeptu narratiboa iraganeko lotura-

sokan biziberritu eta etorkizunari begira jartzeko. Hizkuntza-muinak gordetzen duen oroimen kulturala, aurrez utzitako beste oroimen-arrastoeekin loturan da goenez, memoria berreraikuntza eguneratu eta orainaldia biziberritzeko eraginak dituen ezagutza kulturala da. Aurretiko eraikuntzen berreraikuntza, berreraikuntza eta deseraikuntza prozesu bidearen urratsa.

Ardazten diren «buruko kulturalak» garrantzi handikoak dira: horien balio oinarriak logika kulturalaren ardatzak dira, hots, lurraldea eta hizkuntza erdigunean daude; berdin gaien norabide soziala gizartearen diskurtsoaren norabidearekin loturan. Baita eszenaratzea, estetika, irudia, estiloa, horiek batera nortasun-iturri den jarrera kulturala erakusten baitute. Buruko guztiak, epe luzeko memorian biltegitratutakoarekin harremanetan eguneratzen diren eduki eraldatzaileak dira gizarte-balioen loturan. Dispositibo sinbolikoaren eguneratze-prozesu honetan herriarekiko lotura edo *feed-back*-aren eragina beharrezkoa da egoki eguneratzeko. Horrenbestez, esandakoetan oinarrituta, hauxe ondorioztatzen dugu:

1. Deskribatutako eremua egungo kultura-dinamikan errealitate sozial baten adierazlea eta laburbiltzailea denez, mugarri kultural eta baliabide indartsua da. Ondorioz, kultura-kapitala baitaratzen duen gune sinboliko indartsua da.
2. Eremu horretako diskurtsoaren norabideak aniztasuna eta elkarbizitza onartze-prozesutik elikatzen ditu, betiere, hizkuntza eta lurralde ardatz egituratzaileetan, ondorioz, nortasun kulturalaren eraikuntzaren balio oinarriak erakusten ditu.
3. Eremu hori «bilgune» partekatu eta onetsiaren espazio-denbora eraldatua da, narratiba identitarioa elikatzera datorren bidegurutze estrategikoa, pertenezia-molde bat bizipenezko susperraldian iragar baitezake. Gune sortzaile horrek irudikatzen duen identitatea, «performatiboa» den neurrian, esanekin ezaugarritzen du, eraikitzen eta berreraikitzen ari baita eta identitate-osaketan komunitatea irudikatze modu berri baten alde egiten du.
4. Ordena sinbolikoa zentzu-ekoizpenaren antolatzailea da, etengabe birsortzen den dimentsioari mamia, jarrera eta nortasun kulturala daramazkiolarik. Ondorioz, aldiro biziberrituz eta eguneratuz indartzen den narratiba kulturalaren arrasto identitario eta ekoizlea da.
5. Irudikatzen den izate hori, iraupen txikien segida gisa ulertua, sorbide baten bilgune gisakoa azaleratzen da. Ondorioz, narratiba kultural baten izendatzailea, izanak izenarekin loturan jartzen duen lotunea plazaratzen baitu, sorbide horri jarraitutasuna emanez, denboran iraunarazi egiten duenez
6. Sortzaile izateko behar den irudimena memoriaren bidetik eratorria denez, bata bestea elikatzen du. Memoriak, fikzioaren prozesu sortzailearekin elikatzen denean, esan-ekinari norabide bat ezartzen dio, beraz, fikzioaren erabilera sortzailea, iragana eta oraina biziberritzeko prozesua da; fikzioan irudikatutakoa alegiazkoa denez eta, «izan»en eta «izatera iritsi»ren arteko mugetan kokatzen denez, muga horietan irudikatzea behar-beharrezkoa izango da izatearen bidean iruditegiaren eta giza ekintzen arteko harremanen berrelikadura etengabea suspertuz.

7. Errealitate sozialaren antolaketa harreman sinbolikoen arabera dela ulertzen dugu, hortaz, bilgune horretan metatutakoa errealitate sozial zabalagoaren baitaratzilea da, hau da, pertsona zein interes sozial zehatzez osatutako errealitatea. Ondorioz, oso garrantzitsua da diskurtso berriak eta irudi berriak elkarrekin irudikatzea, itxaropenaren elikagai, errealite berriak elkarrekin sortu ahal izateko.
8. Bertsolaritza herrian ondo txertatutako ekoizpen kulturala da eta merkatulehian arrakasta zein onarpen sozial handiaren ondorioz, nortasunaren eremuko gizarte-lehia sinbolikoan jokatzeko kapital kultural esanguratzaila da, mami handikoa denez.
9. Bertsolaritza identitate-praxiarekin lotu dugu hemen, hots, nortasun-emai-learen ezaugarriak baitaratzen dituen: testuinguru bat edota lurralde bat, hizkuntza bat, iragan bat, identitate eraberritzailea irudikatzen du kapitalla (aritzetik eraikiz eta izaten azalduz).
10. Gaur, emakumeak irabazitako esparru kultural horrek pentsabide eta ekinbide psikosozial berriari atea ireki/zabaldtu egiten dio, transmisioaren eraldaketan emakumea erdigunean kokatu eta balio handiko eraldaketa eraginez.

Bibliografia

- Auge, M. (1992): *Espacios del anonimato: Lugares y no lugares*, Gedisa, Bartzelona.
- Arriaga Landeta, M. (1994): "Identitate kolektiboak. Berauen analisisirako zenbait ohar", *Uztaro*, **12**, Bilbo, 135-142.
- Arraiza, E. (1995): "Eusko kultur gaiak", *Uztaro*, **13**, Bilbo, 35-52.
- Apodaka, E. (2007): "Kultura eta identitatea. Ikuspegi psico-soziologikoa", *Euskal Herria ardatz*, UEU, Bilbo, 95-187.
- Bateson, G. (1989): "¿Qué es pues una metáfora"? *El temor de los angeles*, Gedisa, Bartzelona, 182-198.
- Berger eta Luckman (1984): *La construcción social de la realidad*, Amorrortu, Buenos Aires.
- Bordieu, P. (1997): *Razones prácticas: Sobre la teoría de la acción*, Anagrama, Bartzelona
- Bauman, Z. (2002): *La cultura como praxis*, Paidós, Bartzelona, 9-94.
- Chantal, M. (1998): *La razón estética*, Alertes, Bartzelona.
- Dan Sperber, (1978) *El simbolismo en general*, P. cultural, Bartzelona.
- , (1989), "Es preracional el pensamiento simbólico?", in M. Izard eta P. Smith, *La función simbólica*, Jugar, 17-43.
- Del Valle, T. (1985): "Análisis simbólico de la fuerza", *Mujer vasca. Imagen y realidad*, Anthropos, Bartzelona, 175-190.
- , (1987): "La liminalidad y su aplicación al estudio de la cultura vasca", *Kobie*, Bilbo, 7-12.
- , (1996), "Nortasuna, memoria eta botere-jokoak", *Uztaro*, **17**, Bilbo, 47-57.
- Durkheim, E. (1982): *Las formas elementales de la vida religiosa*, Akal, Madril.
- Durand, G. (1981): *Las estructuras antropológicas de lo imaginario*, Taurus, Madril, 329-390.
- Eco, U. 1977 (1981): *Tratado de semiótica general*, Lumen, Bartzelona, 69-94.
- , (1992): *Los límites de la interpretación*, Lumen, Bartzelona, 160-178; 215, 233.
- Fernandez, J. (1973): "Analysis of Ritual: Metaphoric correspondences as the Elementary Forms", Reprinted from *Science*, volume 182, 1366-1367.
- Geertz, Clifford. (1998): "Deskribapen trinkoa: Kulturaren teoria interpretatibo bateruntz", *Ankulegi, Antropologia aldizkaria*, 93-116.
- , (1973) : *La interpretación de las culturas*, Gedisa 2005, Bartzelona.

- Hernandez, J. M. (2008): "Euskara birpentsatu beharra, ekarpen batzuk antropologiatik", *Bat, Soziolinguistika aldizkaria*, **69**, 27-42.
- Hobsbawm eta Terence Ranger, (1983): *La invención de la tradición*, Ranger.
- Huici Urmeneta, V.(2007): *Espacio tiempo y sociedad*, Akal, Madril.
- Irigaray, J. (2005): *Bertsolari aldizkaria*, **60**, Andoain, 337-244.
- Leach, E. (1989): *Cultura y comunicación. La lógica de la conexión de los símbolos*, Siglo XXI, Madril, 111-118.
- Levi-struss, C. 1996, (1958): "Eraginkortasun sinbolikoa", *Antropologia estrukturala*, Bilbo, Klasikoak, 211-229.
- Larrinaga, A. (2002): "Kulturaren botere sinbolikoa, Euskal intelligentsia akademikoaren premiari buruzko gogoeta", in askoren artean, EHU 2021, EIRE Bilbo, 384-394.
- Lotman, I. (1998): *La semiosfera. Semiotica de la cultura, del texto, de la conducta y del espacio*, Catedra, Madril.
- Maffesoli, M. (1990): *El tiempo de las tribus*, Ikaria, Bartzelona.
- Miranda, B (1989): "Identidad colectiva y reproducción simbólica", in A. Perez-Agote (arg), *Sociología del nacionalismo*, UPV-EHU, 247-251.
- Kristeva, J. (2001): *Semiótica*, Fundamentos, Madril, 7-52.
- Turner, V. (1988): *El proceso ritual*, Taurus, Madril, 21-52.
- , (1990): *La selva de los símbolos*, Siglo XXI, Madril.
- Van Gennep, A. (1986): *Los ritos de paso*, Anagrama, Bartzelona, 20-35.
- Zulaika, J. (1985): *Bertsolaritzaz bi saio*, Bertsolari liburuak.
- , (1990): "El bertsolari: improvisación y argumento de imágenes", *Violencia vasca. Metáfora y sacramento*, Nerea, Madril, 239-269.
- , (2008): "Etnografías del deseo: Bases teóricas", Donostian XI Antropologia Kongresua, 247-284.

